ERRIENTSA BERRIA

Testuan sar zaitez



a- Zer da testu horren izenburua?
b- Zer istorio mota da?

◇ polizia narrazioa ◇ ipuina ◇ antzerkia
◇ azalpen-testua ◇ elkarrizketa ◇ olerkia
◇ alegia ◇ bizi narrazioa

c - Nor da testu horren idazlea? Zer liburutik hartua da testu hori?
c - Hiztegian diren hitzak testuan gainmarka itzazu. Hitz horien ulermena landu ondotik, testua berriz irakur ezazu.
e - Non eta noiz gertatu zen istorioa?
f - Zenbat urte zituzkeen idazleak garai hartan?

Testua uler ezazu

a- Bere biziko zer memento berezi kontatzen digu Daniel Landartek?

b- Testuaren gertakari hauek ordena itzazu:

-Aboza ozen eta begia zorrotz, beldurra ematen zigun.
- Gure errientsa, aldiz, kontenxko zen...Donoztiriko eskolako haurrek frantsesa mintzatzen zutelako...
-...eskolako ate ondoan plantatu behar ukan bainuen, neure jatsa eskuan.
- errienta bularretik eritu zela
-Eta segidan erran zigun hura zela errientaren “egiazko” ordaina
-Beraz, erabaki hau hartu zuen: **errekreazione** denboran ere *denok beti frantsesez* ari izan behar genuela.
-”...eskolara sartzeko mementoan jatsa eskuan atxikiko duenak **gaztigu** bat ukanen dik!...

c-Frantsesa ongi ikasteko zer behar zela uste ote zuen errientsak?
◇ euskara ahantzi ◇ kiskun-kaskun bi mintzairak nahasi

d-Zer izan zen haren erabakia?
◇ **Errekreazione** denboran ere *denok beti frantsesez* ari izan behar genuela.
◇ **Errekreazione** denboran euskaraz mintzatzen ahal ginela.

e-Nor zen zigortua eskolara sartzeko mementoan?
◇ Azkenik jatsa eskuan atxikitzen zuena.
◇ Errekreazione denboran jatsa eskuan ukan zuena.

f-Daniel Landart gaztigatua izan ote zen? Zergatik?
◇ Bai, *"euskaraz hobeki"* erran zuelako.
◇ Ez, beti frantsesez mintzo zelako.
◇ Bai, "Jo!" erran zuelako.

g-Zer idatzia da letra etzanez eta ubelez? Zer hizkuntzatan da? Zer da?
◇ Olerkia ◇ Zigor lerroak

h-Zenbat aldiz kopiatu behar zuen bigarren aldiz *harrapatua* zen ikasleak?
◇ Berrogeita hamar aldiz ◇ Gaztigua doblatua zen ◇ Ehun aldiz

i-Zer ondorio izan ote zuen gaztigu edo zigor horrek?
◇ Sekula baino gehiago euskara entzuten zen errekreazione denboran.
◇ Errekreazione denboran denak frantsesez ari ziren.

Ahoz adieraz ezazu

a-....Errientsa berria joan zen: "Sans pleurs ni couronnes"...Zer erran nahi du erran-molde horrek?
Zer sentimendu zukeen Daniel Landartek errientsa hori joatean?

b- Zer sentimendu sortzen du zure baitan gaztigu horren istorioak?

c- Zure aitatxi-amatxiek jadanik kontatu ote dizute horrelako zigor istoriorik?

Idatz ezazu

*"Inoiz ez dut ahantziko zer **bihotz-zimikoa** izan zen hori enetzat."*
Horrela bururatzen den istorio labur bat idatz ezazu. Eskolan, etxean, oporretan...bizi izan duzun ezin ahantzizko memento bat konta ezazu zure emozio eta sentimenduak azalduz.

.....
.....
.....
.....
.....
.....

.....
.....